



San Andres

TXIKITTO

2013ko azaroa

139



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Mainer Aranberri, Koldo
Mitxelena eta Eibarko ikastetxeetako
ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Mainer Aranberri
eta Koldo Mitxelena.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa
eta Koldo Mitxelena.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Ama, ama, zer dago
hurbilago, ilargia ala
Zarautz?

Ume, zu tuntuna zara
ala? Ikusten al duzu
Zarautz leihotik?

Eneko Lapazaran

Luar eta Endika banko
batean eserita daude eta
Luarrek esaten dio
Endikari:

Ipurdia lokartu zait.

Bai, bai, entzun dut
zurrunka egiten.

Luar Garcia de Amezaga

Mikel mutil handi eta
indartsua zen. Egun
batean amak esan zion:
Mikel kalera noa, ondo
zaindu etxea inor ez
sartzeko.

Ama joan zenean Mikelek
etxeko atea hartu eta
kalera joan zen. Amak
kalean ikusi zuenean
esan zion:

Baina Mikel, zer egiten
duzu hemen? Ez al dizut
esan etxea zaintzeko?
Lasai ama, atea hemen
daukat-eta.

Samira Akarouch

Jaimito mendira joan eta
galdu egin da. Telefonoz
deitzen du baina amaren
telefono zenbakia ez
dakienez, 112-ra deitzen
du:

Ama, ama!

Nor da zure ama?

Ba zeu! Nor izango da
ba?

Ayman Malek

Zeintzuk dira animaliarik
zaharrenak?

Zebrak eta pinguinoak,
txuri-beltzak direlako.

Maddi Gutierrez

Aizu, zer ordu da?

Hamabiak

Ze berandu!

Ba lehenago galdetu
hurrengoan!

Leire Uranga



Aldatzeko ikasleak, urriaren 8an, Arraten egon ziren. Argazkian ikus dezakezuen bezala, talde ederra elkartu zen. Behelainoa egon arren primeran pasatu zuten.



San Andres ikastetxeko 4. mailakoak Sastarrainera joan ziren irailaren 30etik urriaren 2ra arte. Hainbat ekintza egiteko aukera izan zuten, aspertzeko astirik gabe, eta oso pozik etorri ziren bueltan.



Argitxo erraldoia agertu da **Sansaburuko** ikastolan! Abes-
tiak dioen bezala, buruan txano gorria eta eskuetan kriseilua
duela, pozarren hartu dute ikastolako ikasleek laguntxo be-
rria. Argazkian ikasleek inguratuta, euskara gure ezpainetan
izan behar dugula gogora ekarri digu.



Azaroaren 8an eta 15ean **Urkizu** ikastetxeko 3. zikloko ikasleek Aerobic Hip Hop saiok izan zituzten. Bestalde, azaroaren 11n Gaztainerre eguna ospatu genuen eskolan eta azaroaren 29an, berriz, San Andres eguna. Azoka eta jaialdi eder bat prestatzen ari gara gurasoentzat.



Arrateko Andra Mari ikastetxeko LHko 1., 3. eta 5. mailakoak Baikorak antolatzen duen tailerrak egin dituzte eskolan bertan: "Jolasean erronkei aurre egiten diegu, jolasean elkar ezagutzen dugu eta jolasean musikaz gozatzen dugu". 6. mailakoak, berriz, Juan San Martin liburutegira joan ziren, eta bertan, Asierrek, liburutegiak nola funtzionatzen duen azaldu zien. Argazkian duzue taldea. Horrez gainera, azaroaren 11n Gaztainerre eta 29an San Andres eguna ere ospatuko ditugu.




Argazkian ikus dezakezuen moduan, **La Salle Isasiko** Lehen ziklokoak, plisti plasta ibili dira 2 astetako igeriketarikastaroa egiten polikiroldegian, eta diploma eta guzti banatu diete! Urriaren 29, 30 eta 31n 4. mailakoak Lurraskara joan ziren ingurugiroa aztertzen duen eskola batera.

DENBORAPASAK

A	R	R	A	N	O	A	B	G	H
J	A	S	N	L	E	H	O	P	A
C	G	T	X	P	M	P	N	O	A
L	N	X	K	O	I	N	O	B	R
D	H	T	O	T	S	O	A	G	R
K	O	K	O	D	R	P	L	O	A
H	V	A	K	K	F	L	A	A	P
W	Z	T	E	V	W	O	Y	V	N
Z	C	U	K	Y	G	A	O	W	A
T	X	A	K	U	R	R	A	R	H

- Lehopa
- Tximinoa
- Arraina
- Otsoa
- Kokodriloa
- Katua
- txakurra
- Oploa
- Arranoa



DEFINIZIOAK

1: Bi gurpil daukum
ibigailua

2: Oportetam joan
ahal zareen lekua.
Etxe moduko da: lo
egiteko, piszina...

3: Uretam dagoen
animali mota.


4: Lan egiteko eta
solasteko balio duen
gailua.

5: Fremak erabiltzen
duen bidea

6: Bizi zareen lekua

7: Esmez egindako
jakin.

Normalean arditik
ateratzen



GURUTZEGRAMA

Etorkizuna badu marrazkigiri

San Andres jaiak gain-gainean ditugu. Ia konturatu barik ailegatuko zaizkigu, ka-lean ikusiko zenuten kartelak iragartzen duen moduan. Kartel horrek irabazi du aurtengo lehiaketa, helduen mailan, baina gaztetxoenen artean ere bada irabazlerik. Leire Goenaga (11-14 urte bitartean) eta Salma Losada (10 urtetik behera) izan dira aurtengo irabazleak. Eurenekin egon gara solasean.

- Zer erakusten du zuen kartelak eta zergatik?

Leire: Gazta baten barruan sagu bat agertzen da, eta horrez gainera 2 tomate, pepino bat eta artoa. San Andresetako azoka gogoan izanik egin nuen kartela.

Salma: Nire kartelean esku bat agertzen da

otar bat eusten, eta tomatea eta ilarrak agertzen dira. Nik ere azoka izan nuen gogoan kartela egingeko.

- Zein teknika erabili duzue?

Biak: Margo akrilikoarekin margotu dugu, asko gustatzen zaigulako.

- Zergatik aurkeztu zineten lehiaketara?

L: Portaleko marrazki eskolan dihardut, eta Leire irakasleak animatuta aurkeztu nintzen.

S: Nik ere gauza bera. 3. urtea dut marrazki eskolan eta han proposatu ziguten lehiaketara aurkeztea.

- Espero zenuten irabaztea? Zer esan dizuete ingurukoek?

L: Ez, ez, ezustekoa izan da, ez nuen espero. Zoriondu egin naute.



ntzak Eibarren

S: Nik ere ez nuen espero. Sorpresa polita izan da, eta asko poztu nintzen jakin nuenean. Senide eta lagunek ere pozarren hartu dute albistea.

- Beste lehiaketaren batean parte hartzeko asmorik? Beste saririk irabazi duzue?

L: Ziur asko San Juanetakoan hartuko dut parte. Aurrez ez dut saririk irabazi.

S: San Juanetakoan jardungo dut. Iaz hor atera nuen lehen saria.

- Aurrera begira marrazten jarraitzeko asmoa duzue?

L: Niri gustatuko litzaidake, bai. Momentuz, behintzat, jarraituko dut.

S: Nik ere bai. Beti nago marrazketarekin pentsatzen eta nagusia naizenean ere, marrazten jarraituko dut.



SAN ANDRESETAN

ZER EGIN:

Azaroak 17, domeka: Eskolarteko bakailao lehiaketa. 12.00etan Untzaga plazan.

Azaroak 23, zapatua: X. Txistorraren Eguna. Kilometro bat txistorra prestatu eta salgai jarriko da. 09.15enetatik 22.00ak arte, Untzaga plazan.

Azaroak 24, domeka: Bakailao kofradiaren XX. Kapituluua.

11.30etan: Ongietorria kofradiei. Desfilea Untzagako Jubilatuen Egoitzaraino.

12.30etan: Bertan Ohorezko Kofradeen Zin egitea eta Goruntz abesbatzaren saioa.

11.30etan: Bakailao txapelketa. Untzaga plazan.

Azaroak 30, zapatua: 09.30etan XXXV. San Andres Nekazaritza-azoka.

09.30etan: Ganadu-erakusketa Errebalen.

12.00etan: Gipuzkoa Poliklinika Bikoteka Aizkolarien txapelketa. Errebalen.

12.00etan: Narbaiza eta Gorrotxategi bertsolarien eta Jainaga eta Narbaiza trikitilarien emanaldia.

12.30etan: Plazara Dantzara Erromeria Jainaga eta Narbaiza trikitilariekin eta Kezka Dantza Taldearen eskutik.

13.00ean: San Andres azoka, pintxo txapelketa eta kartelen sari-banaketa.

Nagusixen eta umien artian
desbardinttasun haundixak
izaten dirala pentsatzen dogu.
Baiña zer gertauko zan galdera
bardiña egitten badetsagu
nagusixari eta umiari?
Horrenbesteko aldia
egongo ei da?

Zelan ospatzen dozuz/zenduazen Sanandresak?

GAROA MAGUNAZELAIA, 10 URTE

Kezka Dantza taldian nabillenez, dantza egittera urtetzen gara. Lagunekin azokia ikustera juaten naiz eta gero soziedadera juaten gara bazkaltzera. laz, gaiñera, San Andresetako kartel-lehiaketia irabazi neban, eta sarixa emon zesten. Ilusiño haundixa egin zestan. Dana gustatzen jata egun horretan eta, zeozer gehitu biharko baneban, kaletik San Andres kantauak entzutia izango zan.

ITZIAR ZABALA, 66 URTE

Lehen ez zeguan ferixarik; beti ospatu izan dogu lagunarteko afarixakin bezperan, bai lehen bai oiñ. Gaur egun azokia ikusten dogu eta dantzak asko gustatzen jataz. Politta beginttazen jata jendiak basarritar jantzeko hartu daben ohitturia.



JON ALONSO, 10 URTE

San Andres eguna lagunekin pasatzen dot, ikastolako postua be jartzen dogu, azokia ikusi eta euskaraz berba egitten dogu. Kezkako dantzak asko gustatzen jataz eta gitxien gustatzen jatana da jende asko ibiltzen dala eta ezin dala ibilli: proposamen bat be egingo neban: bertsolarixak egotia San Andres egunian. San Andresetako jaialdixa egunian bertan egin biharko zan.

JAVIER ETXEBERRIA, 71 URTE

Asko aldatu dira gauzak. Lehen Alfatik urten eta txikiteua egitten genduan, eta afarixa. Euskeria beti entzun izan da, lehen eta oin. Taillarreko erropiakin eta abarkekin urtetzen giñan kalera. Gaur egun, egunpasa egitten dogu: sagardava eran, talua jan eta azokia ikusten dot. Animalixak be ikusten dittut. Bertsuak egotia ez zan bape txarto egongo. Illobak be dantzan ibiltzen dira eta ikustera juaten naiz.





HEZKUNTZA LEGE BERRIA ATALEZ ATAL

Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoaren (LOMCE, gaztelaniaz) ildo nagusiak plazaratu zirenetik, erreformak kritikak baino ez ditu jaso hezkuntza komunitatearen aldetik. EA Eren eskuduntzak urratzen ditu eta hezkuntzaren kalitatean galera ekarriko du. Hauek dira erreforma honen 10 aldaketa nagusiak:

1. Gaztelania nagusi: murgiltze linguistikorik ez

Espainiako Gobernuak ezarriko ditu Gaztelania irakasgaiaren eduki eta ordu kopuruak. Aurrerantzean, irakasgai ardatz izango da. Euskara, berriz, espezialitate ikasgaitzat jo dute, Heziketa Fisikoaren edo Musikaren maila berean.

2. Zentralizazioa: Ministerioaren kontrol handiagoa

Edukien % 65 kontrolatuko du Espainiak (% 75, bigarren hizkuntza ofizialik ez duten erkidegoetan). Paradoxa bada ere, erreforma ezartzeko finantziarioa erkidegoen esku egongo da, hein handi batean.

3. Erlijio katolikoa

Erlijioa espezialitate irakasgai izango da datorren ikasturteetik aurrera. Batez besteko nota kalkulatzeko erabiliko dute, eta beste ikasgaien ordu kopuruarekin parekatuko dute.

4. Errebalidak eta azterketak, noiznahi

Selektibitatea desagertu egingo da baina ziklo batetik bestera igarotzeko, azterketa egin beharko dute ikasleek. Azterketok eskolaz kanpoko erakunde batek antolatu eta zuzenduko ditu. Hurrengo ziklora pasatzeko gaitasun beharrezkoak bi dira: DBHkoa eta Batxilergokoa. Unibertsitateek ere sarbide-proba propioak egin ahalko dituzte.

5. Lanbide Heziketa: Ikasleen zatiketa

Lanbide Heziketan hasteko adina aurreratuko dute. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan aurrera egiterik ez duten ikasleek Oinarrizko Lanbide Heziketan eman ahalko dute izena, 15 urterekin. Halere, aurreneko ziklo hau eginda, Bigarren Mailako Lanbide Heziketan jarraitu nahi dutenek beste azterketa bat egin beharko dute. Ikasle "txar eta onen artean" bereizte horrek haserrea piztu du hezkuntza komunitatearen baitan.

6. Arlo ezberdinek eskolan duten garrantzia, txikiagoa

Eskola Kontseilua, aholku-emaile soila izango da aurrerantzean. Ez du eskola erabakietan eta antolaketan zuzenean eragingo. LOMCE legearekin, zuzendariak eta zuzendaritza taldeak izango dute boterea.

7. Zuzendarien papera

Gobernuak izendatuko ditu eskoletako zuzendariak, izan ere, kargu hori izan nahi duten irakasleek formazio prozesu bat igaro eta ziurtagiri bat eskuratu beharko dute. Orain arte Eskola Kontseiluak izendatzen zuen zuzendaria. Irakasleak zuzenean kontratatu ahalko dituzte zuzendariak, eta hauek ez dute zertan oposizioa gaituta izan.

8. Funtzionarioen lan-baldintzak

Irakasleen lan-baldintzak ere aldatuko dituzte. Funtzionarioek zein ikastegaitan, eta zer-nolako jardunean arituko diren erabakitzeaz gain lanordua ere moldatu ditzake Administrazio zentralak.

Horrez gain, ikasgela bakoitzean egon daitekeen ikasle kopurua % 10 igoko dute.

9. Eztabaidarik eta akordiorik gabeko erreforma

Erreforma ez da hezkuntza komunitatearekin eztabaidatu, ezta adostu ere.

Azaro amaiera edo abendu hasierarako onartuko dute Kongreso eta Senatuan. Izan ere, erreforma 2014-15 ikasturterako indarrean egoteko, 2014a erkidegoek aldatetara moldatzeko baliatzea nahi du Gobernuak.

10. Itunpeko zentroak

Itunak berritzeko epea luzatuko dute. Lehen Hezkuntzan gehienez ere lau urtean behin berritzen da orain, aurrerantzean sei urteko epean; Bigarren Hezkuntzan, lau urtean behin.



Tapoi-zigiluak

Guztiok dakizue zein garrantzitsua den birziklatzea. Etxean gauza askori atera diezaiekegu etekina, eta ditugun gauza asko berriro erabiliz, eskulan politak egin ditzakezue, adibidez tapoi-zigilu hauek.

ZER BEHAR DUGU?

- ✂ Pegatina bigungarriak (erliebe pixkat dutenak)
- ✂ Koloretako tenperak
- ✂ Tapoiak



NOLA EGITEN DA?

Lehen urratsa

Garbitu ondo tapoiak. Bildu forma ezberdinetako pegatinak.

Bigarren urratsa

Tapoien gainean itsatsi pegatinak.

Hirugarren urratsa

Plater batean jarri margoa edo tenpera eta zigiluak busti bertan. Paperaren gainean marrazki dibertigarriak egin ahal izango dituzue, egin berri duzuen zigiluak erabiliz.



etxeko SUKALDARIA

ARRAIN-TARTA

Urtebetetze-jairen bat ospatu behar duzuela? Tarta erraz, gozo eta polit bat egiteko pausoak dituzue bertan. Diru asko gastatu gabe eta lan gutxirekin lagunak zur eta lur lagatzeko moduko tarta egingo duzue!

OSAGIAK

- ✓ Bizkotxo biribil bat (etxean ere egin dezakezue bizkotxoak)
- ✓ 2 koilarakada Nutella
- ✓ Koloretako Lacasitoak

Pausoak:

- 1.- Tartari arrain-itxura emateko, argazkian ikusten den moduan, moztu triangelu formako zati bat. Geldituko den zuloa arrainaren ahoa izango da, eta triangelu zatia buztana.
- 2.- Berotu mikrouhinean nutella eta igurtzi tarta osoan.
- 3.- Itsasi Lacasitoak txokolatearen gainean, nahi duzun forma emanez.



ARIES

Eguraldiak hoztu egin du eta badakizu, katarorik harrapatu nahi ez baduzu, txamarra potologoa jantzi beharko duzu. 6 zenbakiak zortea ekarriko dizu.

TAURUS

Etxean gehiago laguntzea ez zen gaizki egongo. Gutxienez zure ohea egin, eta mahaia jarri eta kentzeko gai ere bazara, zure adinarekin... Alferrontzi, mugitu ipurdia!

GEMINIS

Ikasketetan bikain jardungo duzu datozen asteotan. Horrek esan nahi du gogotik egingo duzula lan eta irakasleak esandakoari kasu egingo diozula. Jarraitu horrela.

CANCER

Orain arte zortea izan duzu, eta lan askorik egin gabe, ondo irten zaizkizu gauzak. Baina ez zaitez erlaxatu, agian gauzak alda daitezke-eta. Ez galdu arreta.

LEO

Txokolatea, txokolatea eta txokolatea. Besterik ez duzu buruan. Pixka bat jatea ondo dago, baina tableta osoak egunero... Barazki gehiago jan, zure gorputzak eskertuko dizu-eta.

VIRGO

Udako oporrak eta gero, asko lasaitu zara eta zure ingurukoek ere igarri dute aldaketa hori. Gustorago daude zurekin, eta hori oso garrantzitsua da. Badakizu, lagunak zaindu egin behar dira!

LIBRA

Olentzero noiz datorren? Zaude lasai, oraindik denboratxoa falta da-eta. Dena dela, egizu oparien zerrenda, gero korrika eta presaka ibiltzen zara-eta.

SCORPIUS

Zenbat aldiz esan behar zaizkizu gauzak? Gurasoak nekatuta dituzu, errepikatu eta errepikatu. Zuri berdina egingo balizute, zer? Egin kasu lehenengoan mesedez.

SAGITARIUS

Datozen egunotan 3 zenbakiak zortea ekarriko dizu. Zure kolorea horia izango da eta, animalia, katua. Jolasean ere zortea izango duzu, eta maitasunean zer esanik ez! Zorionak.

CAPRICORNIUS

Ezustekoa jaso dezakezu laster. Adi egon eta zabaldu ondo begiak, uste baino gertuago duzun pertsona izan daiteke-eta.

ACUARIUS

Ez eman hainbesteko garrantziarik besteek esaten dutenari. Zu ziur bazaude egiten duzunarekin, aurrera! Askotan zein txarra den inbidia...

PISCIS

Gauza asko egingo zenituela zin egin zenuen. Zertan gelditu diru asmo horiek? Noiz egingo dituzu? Helburu txikiagoak jar itzazu, betetzeko errazagoak direnak.

INTERNETEN...

txiki.net
euskal umeon z(d)ibertxokoa

ipuinak jokuak kantak guneak

Txikinet proiektuari buruz **gehiago** jakin nahi baduzu...

Olentzero laster agertuko da gure etxeetan, bitartean www.olentzero.info

Oraingoz, hau da dagoen guztia. Zure laguntzarekin **txiki.net** handitzen eta

www.txiki.net

Euskal umeon z(d)ibertxokoa duzue honako hau. Gauza mordo bat aurkituko duzue bertan, eta aspertuta zaudetenean sartu eta ikusiko duzue zein ondo pasako duzuen. Beste ume batzuk egindako ipuinak ikusiko dituzue, abesti pila bat, jokuak eta hainbat gune ere bai: zientzia, natura, hizkuntza...

liburutegiak.blog.euskadi.net/eibarkoumeak

Hau da Eibarko Juan San Martin Liburutegiak zuentzat pentsatuz egin duen bloga. Hemen topatuko duzuen zera da: irakurketa gomendioak, eskolako lanak egiteko laguntza online eta, baita, Eibarri buruzko informazioa ere.

Eibarko Umeen Liburutegia
Ume eta gaztekoen txokoa

HOME ESKOLAKO LANAK KATALOGOA LIBURUTEGIKO JARDUERAK NOBEDADEAK

KEEP IN TOUCH Type your search GO

Zapatuko ipuina
OCT24 2013 WRITTEN BY MAIDER LEAVE A COMMENT

HIZKUNTZA
• Euskera
• Español

KAIXOI
Hau da Eibarko JSM Liburutegiak zuentzat pentsatuz egin duen bloga. Hemen topatuko duzuen zera da: irakurketa gomendioak, eskolako lanak egiteko laguntza on line eta baita Eibarri buruzko informazioa.



KANPOKOA NAIZ, ETA ZER?

Andres, Andy edo Ander, deitura guztiei berdin erantzuten die ipuin honetako protagonistak. Gurasoak Bolivian utzita, Euskal Herrian bizi da amonarekin eta aurtzen, aurreneko aldiz, Olentzerok ekarriko dizkio Gabonetan opariak. Berak ere sorpresa bat dauka laguntzat gordea.




ARMIARMA ZUHAITZEAN

Armiarma tikiak lau sare egin ditu, lau armiarma sare. Ezin delako bizi etxerik gabe. Poesiaz beteriko liburuko ederra duzue honakoa. Zerbait desberdina irakurtzeko aukera izango duzue. 27 olerki guztira, gai ezberdinetakoak: Hodeia, Katua, Trikitia, Txakurra, Ttanta...



NIRE KALEA

Nire gelan denek dakite ni bizi naizen kalea ez dela kalea, baizik auzoa. Ez bakarrik eskolako mapan hala agertzen delako, baita elkarki etxeko helbidea ematen diogunetan ohartuak direlako ere. Zeren nik beti AUZOA idazten baitut. Maiuskulaz eta fuerte, aitak erakutsi zidan bezala.



IKUSTEN DUDANA

Gaur urtebetetzea dut. Bost urte bete ditut, eta handia naiz. Altuera hau dudalarik, sarrerako altzariaren gainean dagoen lore gorri eta bioletak dituen loreontzia ere ikusten dut.



FRANNY K. STEIN ZIENTZIALARI EROA

Franny K. Stein zientziazale amorratua da, eta gauza beldurgarriak eta izugarriak atsegin ditu. Franny hondamendia geldiarazten saiatu da bere txakur laguntzaile Igorrek hamabost metroko kupido bat, gezi eta guzti, aske utzi duenean.



ILUSIONISTA. NASHA BLAZE ETA MUNDU SEKRETUA

Nasha hamalau urteko mutikoa da, ile nahasikoa, begi-handia eta bizimodu ustez lasaikoa. Gutxienez bat-batean teilatu baten gainean esnatzen den arte, eskuan suzko esfera bat daukala. Zer ote da? Buruan hamaika galdera sortuko zaio, Nashak oraindik ez dakizkielako gauza asko...

URREZKO AHATEA

B

ehin batean Mozolo izeneko mutil bat pinaburutan joan zen basora.

Bidean agure zahar-zahar batekin egin zuen topo eta Mozolok jatera gonbidatu zuen. Agureak eskerronez ahate bat oparitu zion Mozolori. Baina ez nolana hiko ahatea: urrezko lumaduna!

Etixerakoan hiru ahizpa bizi ziren ostatu batean pasatu zuen gaua. Neskatilak kuxkuxera hutsak ziren eta, Mozolo zurrungaka zegoela, poltsan zer aurkituko hasi zitzaizkion. Ahizpa nagusiak aha-

tea ikusi zuenean urrezko luma bati egin zion tira eta hari itsatsita geratu zen. Erdikoa nagusiari laguntzen saiatu zen: gonatik heldu eta... hura ere itsatsita. Gazteenari gauza bera gertatu zitzaion: itsatsita.

Hurrengo egunean Mozolok etxerako bideari heldu zion berriro. Eta, jakina, bere atzetik ahatea eta ahizpak zeramatzan... itsatsita. Apaizak ikusi zituztenean ederra sermoia: "Neskato lotsagabeok! Zer egiten duzue mutilaren atzetik?" Azkeneko neskari heldu zion geldiarazi nahian eta apaiza ere itsatsi. Sakristaua agertu zen orduan. "Goazen meztara" esanez eskua luzatu zion apaizari eta... sakristaua ere soka dantza hartan itsatsita. Eta Mozolo? Mozolo ez zen ezertaz konturatzen! Sakristauak laguntza eskatu zion baserritar bati eta hark ere besteen atzetik joan behar, itsatsita.

Taldea erregearen etxe aurretik pasatu zen. Erregea oso kezkatuta zegoen alabak ez zuelako sekula irribarrerik egiten. Alabari irribarrea ateratzeko gai zenari sari handi bat emateko prest zegoen: alabarekin ezkontzeko baimena emango zion. Alaba, Mozolo gazteluaren aurretik pasatzen ikusita, barrez hasi zen. Sabeleko mina ere egin zit-

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko. MEREZI DU...

zaion. Sabeleko mina? Hortzak ere lokatu egin zitzaizkion. Gero, bikotea ezkondu egin omen zen eta ahateak hegan egin omen zuen.

Eta besteak? Bai, itsatsita zeudenak? Horiek ere hegan egin ote zuten? Itsatsita?




ZEZENGORRIREN HAITZULOA

Orozkon kontatzen dute lapur bat bizi izan zela Itzineko mendian dagoen Atxulaur haitzuloan. Lapur hark, urteetan eginiko lapurretei esker, izugarrizko urre pila bat bildu omen zuen haitzuloaren barruan. Lapurretara beste lurralde batera joan zen batean, hil egin omen zen, eta inork ez zekien non gorde zuen bere altxorra. Behin batean,

kanpotar batzuk Atxularko leizera joan ziren altxorraren jabe egiteko asmotan, baina, hurbildu zirenean ahotik eta sudur zuloetatik sua zerion zezen gorri izugarri bat atera omen zen mehatxuka haitzulotik; lapurraren espiritua, hain zuzen ere. Hurrengo batean, hildako lapurraren hezurrekin joan ziren haitzulora kanpotar haiek, eta bertan utzi zituzten. Orduan bai, orduan atera ahal izan zuten altxorra haitzuloko sakonetik, lapurraren gorpuak betiko atsedena lortu baitzuen.

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.
MEREZI DU...





შენიგობი

zu margolari!